

71E/2024 Ebazpena, irailaren 5ekoa, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emana, “Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeentzako laguntzak 2024” deialdiaren lehen ordainketa onesten duena.

ERREFERENTZIA: Espedientearen kodea: 0011-1407-2024-000000	
UNITATE KUDEATZAILEA:	Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentua Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua Euskara Sustatzeko Atala Tfnoa.: 848 423224 Helbidea: Paulino Caballero 13, 31002 Iruña Posta elektronikoa: sustapena@navarra.es
ESPEDIENTEA	
Espediente mota:	Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeentzako laguntzak.

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentuko kontseilariak apirilaren 17an emandako 40E/2024 Foru Aginduaren bidez, onetsi ziren irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jardura eta programak egiteko laguntzen deialdia eta haren oinarriak.

Ondoren, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak uztailaren 17an emandako 57E/2024 ebazpenaren bidez dirulaguntzen deialdia ebatzi zen.

Bestalde, deialdia arautzen zuen apirilaren 17ko 40E/2024 Foru Aginduaren oinarrietan ezarria dagoen bezala, dirulaguntza bi epetan ordainduko da. Gainera, 57E/2024 ebazpenean adierazi zen lehenengo ordainketa partziala jasotzeko, borondatezkoa eta dirulaguntzaren % 50era artekoa, elkarte onuradunek aurkeztu behar zutela beharrezkoa den dokumentazioa, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta ondorengo 20 egun naturaleko epean.

Euskararen Sustapenaren eta Planifikazioaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena eman du behar den dokumentazioa eta gastuen frogagiriak aurkeztu dituzten zortzi elkarteei lehen ordainketa egiteko.

Hala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d) eta 44. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 240/2024 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Onuradun bakoitzari beheko taulan, lehen ordainketaren barnean, ageri diren zenbatekoak ordaintzea:

Esp. zenbakia	IFK	Izena	Diru partida	Zenbatekoa
0011-1407-2024-000003	G71472252	HAIZEGOA EUSKARA TALDEA	G/B30002/ B3200/4819/334100	2.328,97
0011-1407-2024-000004	G31572654	Karrikiri elkarte	G/B30002/ B3200/4819/334100	26.536,74
0011-1407-2024-000006	G31824675	FEDERACION TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEEN FEDERA	G/B30002/ B3200/4819/334100	48.816,59

		ZIOA		
0011-1407-2024-000011	G31458359	Laubide Kultur Taldea	G/B30002 B3200//4819/334100	1.972,63
0011-1407-2024-000012	G71280325	IDAZLEEKIN SOLASEAN ELKARTEA	G/B30002/ B3200/4819/334100	2.106,71
0011-1407-2024-000017	G31513443	ASOCIACION GRUPO IRURTZUNGO AIZPEA	G/B30002 B3200//4819/334100	1.831,99
0011-1407-2024-000025	G71428536	ASOCIACION LABA	G/B30002/ B3200/4819/334100	7.991,95
0011-1407-2024-000030	G31250087	ZALDIKO MALDIKO KULTUR EL KARTEA	G/B30002/ B3200/4819/334100	5.957,19

2. Ebazpen hau jakinaraztea goiko zerrendako eskatzaile bakoitzari.

3. Ebazpen hau igortzea ondorengoei: Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan duen Kontu hartzaitza Delegatura, aipaturiko departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Ekonomia Kudeaketako Ataleko Zentro Kudeatzailera, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Euskarabideako Langileriaren eta Azpiegituren Kudeaketa Administratiboaren Atalera, eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera, behar diren ondorioak izan ditzan.

4. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean.

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Javier Arakama Urtiaga |